



UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2020/01/21) Hurrengo saioa: (2020/02/04)	Herri Batzarreko akta	Urtarrilaren 18an izandako Herri Batzarreko akta osatzen hasi gara eta dokumentuan zein datu garrantzitsu sartuko diren adostu dugu. Siadecotik jasotako PPTak erabiliko dira horretarako eta horietatik kronogramari dagozkionak bere horretan txertatuko dira aktan, oso osorik. Akta hau etxe guztietara paperean iritsiko da, dokumentuak duen garrantzia azpimarratzeko asmoz.	Akta amaitu eta banaketa antolatu Plan estrategikoaren dokumentu osoa web orrian zintzilikatu
	2030 parte-hartze prozesuko egitasmoak aztertzen hasi	Herri Batzarreko aktarekin batera, jakinarazpen bat bidaltzea erabaki da. Bertan plan estrategikorako eratutako lan-taldeei jarraipena emateko asmoa adieraziko da. Talde guztiak deialdi baterako deituak izango dira baina, ondoren, talde bakoitzak bere antolamendua erabakiko du (ekimenen egutegia, bileren maiztasuna, azpi-taldeak, lan-dinamika, jarraipena,...)	Udal Batzordean deialdiaren data eta bilerarako prozedura erabaki

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO		
Ekimen sozio-kulturalak (2020/01/28) Hurrengo saioa: 2020/02/11	ITSASO 2030	SIADeco-ren ekintza planaren arabera, ekintzak zerrendatu eta azpi-taldeetan sailkatu dira: <table border="1"><tr><td>1.-HERRI BIZITZA: - 10.1.- Informazioa zabaldu - 12.2.- Formazio saioak - 14.5.- Belaunaldiak bateratu - 15.1.- Berriei harrera - 16.1.- Garraioa hobetu</td><td>2.-ENPLEGUA: - 6.1.- Ongizate zerbitzu kooperatiba - 6.3.- Ganbarako plangintza - 18.3.- Berriztagarriaren formakuntza</td></tr></table>	1.-HERRI BIZITZA: - 10.1.- Informazioa zabaldu - 12.2.- Formazio saioak - 14.5.- Belaunaldiak bateratu - 15.1.- Berriei harrera - 16.1.- Garraioa hobetu	2.-ENPLEGUA: - 6.1.- Ongizate zerbitzu kooperatiba - 6.3.- Ganbarako plangintza - 18.3.- Berriztagarriaren formakuntza	Azpi-taldeko bilereren datekin jakinarazpena egin eta banaketa antolatu
1.-HERRI BIZITZA: - 10.1.- Informazioa zabaldu - 12.2.- Formazio saioak - 14.5.- Belaunaldiak bateratu - 15.1.- Berriei harrera - 16.1.- Garraioa hobetu	2.-ENPLEGUA: - 6.1.- Ongizate zerbitzu kooperatiba - 6.3.- Ganbarako plangintza - 18.3.- Berriztagarriaren formakuntza				



		<p>3.-HIRIGINTZA:</p> <ul style="list-style-type: none">- 1.1/1.2/1.3.- Etxebizitza politika (Alegia, Itsaso, baserriak)	<p>4.-GAZTEAK:</p> <ul style="list-style-type: none">- 2.2.- Gazte lokala- 6.3.- Ganbarako plangintza- 2.4.- Kirol estalitako gunea	
		<p>5.-UDAL BATZORDEA:</p> <ul style="list-style-type: none">- 2.1.- Ganbara eta teilatua- 3.1.- Alegiako boulebarizazioa- 3.3.- Baserri bideak konpondu- 4.1.- Internet estaldura- 8.2.- Enpresekin harreman iraunkorra- 10.2.- Adineko zentroen hitzarmena- 11.1.- Ganbararen kudeaketa- 14.3.- Udal zerbitzuak beste guneeetan (Auzo begiralea)- 17.1/17.2.- Alegia - Uribar / bidegorri sarea- 18.1.- LED-ak- 18.2.- Energia berriztagarriak- 19.1.- Lursail publikoak	<p>6.-HERRIKO PRODUKTUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">- 5.1.- Katalogoa- 5.2.- Ekonomatoa (herri bizitzarekin elkarlanean)	
		<p>Azpi-talde bakoitzeko hurrengo bilera egunak zehaztu dira:</p> <ul style="list-style-type: none">- Hirigintza: otsailak 7, 19:00- Herri bizitza: otsailak 8, 19:00- Enplegua: otsailak 13, 19:00		



LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena 2020/01/29 Hurrengo saioa: (2020/02/12)	2020 aurrekontuak	Lehen hurbilpena egin da eta sarrera arruntak eta gastu arruntak aurreikusita, inbertsiotarako 120.000€ inguru izango da gutxigorabehera. Kontuan hartu ez diren sarrerak: enpresetako jarduerak, Gabirikoek zabor bilketagatik egin behar duten ekarpena eta Ezkion bide gorrirako erretserban dagoena, ezta diru-laguntza berri posibleak ere. Barne hartuta daude iaztik indarrean dauden hainbat proiektu: baserri bideak konpontzeko, Alegi-gunean plaza eta bulebarizazioa, Udaletxeko ganbara eta teilatua...	Inbertsio berri beharren arabera partidak definitu 48.000€ banatuz.
	Altzigarraga-Mandubia bidea	GAINERA enpresa hasi da bidea konpontzen. Guztira 3000€ erabiliko dira, non Udalak 1000€ jarriko duen eta gainerakoa ateratako egurren proportzioan lur-jabeek. Bi tokitan hodiak sartuko dira eta kotxez pasatzeko lehen baino egoera hobean geratuko da.	Itturritatik Altzigarragara doan bidea ere konpontzeko, egurzalearekin adostuko da egin behar duena: materiala bota eta berdindu.
	Zuntz optikoa	Urtarrilaren 28an izan zen Gipuzkoako alkate guztiekin Foru Aldundiko Diputatu Nagusiak deitutako bilera, Tolosako udaletxean (Imanol Lasa ere bertan izan zen). Mandubira Garin aldetik iritsiko da zuntza, eta Matxinbentara Azpetiatik, Itsasoerrotaraino. Epeak zehaztuko dizkigute Aldundikoek.	
	Matxinbenta	Igandean, otsailak 2, 4 herrietako alkateak elkartuko dira (Beasain, Itsaso, Azpeitia eta Ezkio) bertako beharrak eta gastuak nola ordaindu aztertzeko. Lehengo hitzarmenaren arabera Itsasori %5,45 dagokio (herri bakoitzaren biztanlearen arabera kalkulatua). Beharrak: hilerrirako bidea, zaborraren kudeaketa, zuntza...	
	Sasieta Mankomunitatea	2019ko likidazioa iritsi da eta 1.900€ izan dira Itsasoren alde. Hala ere, 1.600€ fakturatu dute edukinontzi horien aldaketak eta sistema beraren hobekuntzak medio. Honi kendu behar zaio Gabiriak zor duena eta gehitu Alegiako auzo-konposta zaindu eta egiteko kontratatutako orduen kostua.	